


Ikuspegi orokorra eta bizkor hasteko gida

Euskaltelek itzultako eta
ekoiztutako eskuliburua



Telefonoaren kanpoaldeari buruzko sarrera



Oharra:

Baliteke desberdintasun batzuk egotea telefono-modeloaren arabera. Gida honetako irudiak erreferentzia gisa baino ez dira erabili behar. Produktu jakin bat hartzen du erreferentziazat.

Teklei eta widgetei buruko sarrera

1. ⑤ **Giro-argiaren sentsorea eta hurbiltasun-sentsorea:** Giro-argiaren intentsitatea automatikoki detektatzen du, eta haren arabera doitzen du pantailaren distira.

Telefono-deiak egitean, sentsoreak automatikoki detektatzen du telefonoaren eta zure artean dagoen distantzia. Telefonoaren pantaila itzali egingo da, telefonotik behar bezain hurbil bazaude, ez daitezten aktibatu nahi gabe telefonoaren funtzio batzuk. Sentsorea desaktibatu egingo da entzungailuen eta esku librean moduan.

2. ⑥ **Bolumen-botoia:** Bolumena doitzeko bolumen-botoiaren bidez.
3. ③ **Aurreko kamera/⑧Atzeko kamera:** Argazkiak ateratzeko eta bideoak grabatzeko.
4. ④ **Entzungailua:** Solaskideari entzungailuaren bidez entzuteko telefonoz hizketan ari zarenean.
5. ⑦ **Pizteko eta itzaltzeko botoia eta hatz-marka digitalaren sentsorea** Telefonoa pizteko, luze sakatu pizteko botoia, telefonoa itzalita dagoela.

Hatz-marka ezagutzeko funtzioa du botoiak, eta telefonoa desblokeatzeko erabil dezakezu, pasahitza erabili beharrik gabe.

Oharra:

Ezin baduzu normaltasunez erabili telefonoa, luze sakatu [**Pizteko botoia**] eta [**Bolumen-botoia**] aldi berean 10 segundoz gutxienez, gailua berrabiarazteko.

6. ② **SIM txartelaren emulazioa:** Txartelak instalatzeko/kentzeko.
7. ① SIM txartela ateratzeko tresna bat. Sartu txartela ateratzeko tresna zuloan, estutu txartelen erretilua atera arte, eta, gero, kendu erretilua.
8. ⑫ **Mikrofonoa:** Deiak egitean soinua transferitzeko.
9. ⑪ **Flasha:** Argi-iturria.
10. ⑩ **Bozgorailua:** Soinua erreproduzitzeko.

11. ⑨ **USB ataka:** Telefonoa beste gailu batzuekin konektatzeko (adibidez, kargagailuekin edo ordenagailuekin), datu-kable baten bidez.
12. ⑬ **Entzungailuen ataka:** Entzungailu batzuk telefonora konektatzeko, entzungailuetarako konektorearen bidez.


Instalazioa eta prestaketa

SIM txartelak instalatzeko prozedura


⚠ Oharra: SIM txartel bakarreko edo biko telefonoa izan dezakezu, zure eskualdearen edo operadorearen ezaugarrien arabera, baina gidaliburuak ez du ematen bi bertsioen arteko diferentzia guztien berri. Gida honetan erabilitako irudiek erreferentzia gisa baino ez dute balio, eta ez dute zertan izan zure telefonoaren berdin-berdinak.

Telefono honetan, nano txartelak (SIM1/SIM2) truka daitezke gailua itzali beharrik gabe. Piztuta dagoenean, automatikoki ezagutzen ditu nano txartelak (SIM1/SIM2) gailuan sartzean. Telefono honek nano txartelak onartzen ditu (SIM1/SIM2).


1. Sartu txartela ateratzeko tresna zuloan, estutu txartelen erretilua atera arte, eta, gero, kendu erretilua.



2. Erreparatu diagramaren geziaren noranzkoari, eta bat egin SIM txartelaren ertz angeluduna erretiluaren ertz angeludunarekin.



3. Telefonoa ahoz gora dagoela, jarraitu geziaren noranzkoari erretilua jartzeko (nano txartela barruan duela).



Oharra:

1. Estalki beltza ezin da desmuntatu gailua ez hondatzeko.
2. Jarri SIM txartela erretiluan, eta sartu telefonoan. Ezin da SIM txartelik sartu zuzenean telefonoan.
3. SIM txartela zuk ez moztea gomendatzen dizugu. Nano txartela (SIM1/SIM2) ondo sartzen ez bada, jo zure operadorearengana nano txartel estandar bat eskuratzeko.
4. Telefono honek "Dual SIM Dual Standby Single Pass" modua erabiltzen du; hori dela eta, ahots- eta datu-zerbitzuak ezin dira bi txarteletan aldi berean erabili. SIM txartel batean dei bat ezartzen denean, besteak ezin du deirik egin, ez eta jaso ere.

Beste txartelera deitzen duen pertsonak mezu hau entzungo du: "Deitu duzun telefonoa itzalita dago" edo "Markatu duzun zenbakia ez dago erabilgarri. Saiatu berriro geroago". Bi txarteletako bat datu-konexiorako baliatzen ari denean, beste txartela ezingo da erabili datu-zerbitzuetarako. Dual SIM Dual Standby Single Pass duelako da hori, eta ez dauka zerikusirik operadorearen sarearekin. Telefono honek Single Pass modua bakarrik erabiltzen du, txip bakarreko diseinua baitu; horri esker, bateriak gehiago irauten du modu etenean, eta energia gutxiago kontsumitzen du. Erabiltzaileei gomendatzen diegu jartzeko harremanetan tokiko operadoreekin besteak beste zerbitzu hauek gaitzeko: "Dei galduak gogoraraztea", "Sarrerako deiak gogoraraztea" eta "Telefono-laguntzailea", dei galduen buruzko gogorarazpenak jasotzeko.

Entzungailuak konektatzea

Konektatu entzungailuen konektorea telefonoak entzungailuetarako duen atakan, eta ziurtatu ondo sartuta dagoela.

Telefonoa kargatzea

Sartu datu-kablearen mutur bat telefonoaren USB atakan eta bestea kargagailuan edo harekin bateragarri den gailu batean. Telefonoa kargatzen hasiko da. Kargatzen amaitu ondoren, deskonektatu telefonoa kargagailutik edo harekin bateragarri den gailutik, eta deskonektatu kargagailua korrante-hargunetik.

Gailua lehen aldiz piztu aurretik, gutxienez 30 minutuz kargatzea gomendatzen da.


Oharra:

Erabili telefonoarekin emandako datu-kablea eta kargagailua.

Antena

Telefono honek barne-antena bat du. Ez ukitu antena seinaleak igortzen edo jasotzen ari denean. Antena ukitzeak komunikazioaren kalitatea kaltetu dezake, telefonoak behar baino energia gehiago gastatzen baitu eta, beraz, bateriaren iraupena murrizten. Lerro etenez markatutako zirkuluaren barruan dago antena. Ez estali eremu hori telefonoari eusten diozun bitartean, irudi honetan agertzen den bezala:

A. GPSaren antena/wifiaren antena/Bluetootharen antena; B/C. Komunikazio-antena.

















Oharra:

Gida honetan erabilitako irudiek erreferentzia gisa baino ez dute balio, eta ez dute zertan izan zure telefonoaren berdin-berdinak. Zure telefonoari erreparatu beti.

Egoera-barrako jakinarazpenak eta ikonoak

Egoera-ikonoen esanahia

Pantailaren goiko aldeko egoera-barrak telefonoaren egoerari buruzko oinarrizko informazioa ematen du besteak beste, seinalearen intentsitatea, sistemaren ordua eta bateria-maila.

	Seinalearen intentsitatea
	SIM txartelak ez du seinalerik
	Hegazkin modua aktibatuta
	Wifi-sarera konektatuta
2G / G / E	2G* motako sarearen ikonoa
3G / H / H+	3G* motako sarearen ikonoa
4G	4G* motako sarearen ikonoa
	Bluetooth darabilen gailu batera konektatzea
	Bibrazio modua aktibatuta
	Isilik modua aktibatuta
	Ez molestatu modua aktibatuta
	Mezu berri bat duzu
	Alarma aktibatuta
	Bateria-maila
	Kargatzen
	Datuak aurrezteko modua gaituta
	Sarbide-puntua aktibatuta
	Kokapena aktibatuta
	VPN konektatuta

Oharra

Sarearen ikurra bistaratzen da uneko operadorea eta sare-ezarpenak adierazteko.

Jakinarazpenak ikusteko

Gertaera baten jakinarazpen berri bat jasotzen duzunean, haren edukia egoera-barran agertuko da. Egoera-barra beherantz lerratu eta jakinarazpena uki dezakezu xehetasunak ikusteko.

Pantaila nagusia

Telefonoan aplikaziorik irekita ez dagoenean, pantaila nagusia bistaratuko da. Gailu honek pantaila nagusi bat baino gehiago onartzen du. Lerratu hatza eskuinera edo ezkerrera pantaila nagusi horien artean aldatzeko.

Pantaila nagusiaren interfazean hatza gorantz lerratuz gero, telefonoko aplikazio guztiak ikusiko dituzu.

Pantaila nagusiaren ezarpenak aldatzea

Pantaila nagusiaren zati huts bat luze ukituz gero, pantaila nagusiaren ezarpenak alda ditzakezu, eta nahi duzun widgeta edo pantaila-atzealdea erantsi.

Pantaila nagusitik bilatzea

Ukitu Googleren ikonoa, eta idatzi bilatu nahi duzuna.

Pantaila nagusiarik aplikazioak eranstea

Aplikazioen kutxatik, ukitu eta arrastatu aplikazio bat nahi duzun tokira mugitzeko.

Kontrol-zentroa

Irristatu beherantz pantailaren goiko aldetik kontrol-zentroa irekitzeko. Bertan ikono bat izango duzu, ikono horri dagokion funtzioa berehala gaitzeko edo desgaitzeko.

Mahaigaineko aplikazioak

iManager

iManager-ek eraginkortasunez garbitu ditzake telefonoko zabor-fitxategiak, gailuaren segurtasuna hobetu dezake eta telefonoaren erabilera errazteko hainbat kudeaketa-tresna eskaini ditzake.

Telefonoaren kudeaketa

Optimizatu: egiaztatu telefonoaren egoera, optimizatu ukitu bakarrarekin eta kontsultatu errendimendua hobetzeko gomendatutako optimizazioak.

Lekua garbitzea: cachea ukitu bakarrarekin aztertzeke eta garbitzeke. Funtzio honek, halaber, telefonoaren erabileraren arabera garbitu behar dituzun elementuen gomendio pertsonalizatuak eskaintzen ditu, eta garbitzeke tresna berezi ugari ditu. Horri esker, biltegiratzeko lekua uzten da.


Segurtasun-analisia: sistemaren ahulguneak, birusak, troiarrak, programa maltzurak, sare arriskutsuak eta bestelako segurtasun-arriskuak detektatzen ditu ukitu bakarrarekin, dena garaiz kudea dezazun. iManager-ek bigarren mailako aplikazioen segurtasun-analisia ere egiten du, telefonoa denbora errealean babesteko.

Datuen kontrola: kontsultatu datu mugikorren edo wifi orokorraren eta aplikazio bakoitzaren erabilera. Ukitu aplikazio bat bigarren mailan datu mugikorrek erabiltzeke, edo ez erabiltzeke.

Oharra:

Litekeena da operadoreak eta zure gailuak datu-trafikoa kalkulatzeko metodo desberdinak erabiltzea.


Aplikazioak eta jakinarazpenak: aplikazioen jakinarazpenak eta baimenak konfiguratzeko dituzte.

Beste ezarpen batzuk: i Manager-en pantaila nagusitik, sakatu  **Ezarpenetara** joateko; han, aukera izango duzu i Manager-en ezarpen xeheak aldatzeko eta informazio garrantzitsu gehiago lortzeko.

Tresna erabilgarriak

Erabiltzaile-esperientzia hobea eskaintzeko tresna erabilgarri gehiago daude (pribatutasunekoak eta segurtasunekoak, esaterako).

Kamera

 **Oharra:** Gailuaren ereduaren, operadorearen, herrialdearen edo eskualdearen eskakizunen eta beste gauza batzuen arabera, baliteke gailua aplikazio honekin bateragarria ez izatea edo aplikazioaren funtzio batzuekin soilik izatea bateragarria. **Kontsultatu benetako gailuaren datuak. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan saltzailearekin edo zure zerbitzu-hornitzailearekin.**

Erabili kamera zure bizitzako une harrigarrietako argazkiak eta bideoak noiznahi eta nonahi ateratzeko.

Kamera irekitzea

Kamera aplikazioa irekitzeko

- Pantaila nagusian, sakatu kameraren ikonoa
- Blokeatzeko pantailan, luze sakatu kameraren ikonoa eta lerratu gorantz.

Argazki bat ateratzea

Argazki bat ateratzeko:

- Ireki kamera eta sakatu obturadorearen botoia.
- Ireki kamera, aukeratu Argazkia modua eta sakatu bolumen-botoia.

Argazki-sorta bat egitea

Ireki kamera, aukeratu Argazkia modua eta ukitu luze obturadorearen botoia. Ateratako argazkien kopurua pantailan agertuko da. Sakatu obturadorearen botoia argazkiak egiteari uzteko.

Bideo bat grabatzea

Bideo bat grabatzeko:

- Ireki kamera eta sakatu bideoaren botoia. Ukitu berriro bideo-botoia grabazioa geldiarazteko eta bideoa gordetzeko.
- Ireki kamera, aukeratu Bideoa modua eta sakatu bolumen-botoia. Sakatu berriro bolumen-botoia grabazioa geldiarazteko eta bideoa gordetzeko.

Egindako argazkiak edo bideoak ikustea

Sakatu irudiaren beheko ezkerreko izkinan, argazkia edo bideoa ikusteko.

Aurreko kameraren eta atzekoaren artean aldatzea

Aurreko eta atzeko kameraren artean aldatzeko, sakatu etengailuaren ikonoa, obturadorearen botoiaren ondoan.

Kameraren modua aldatzea

Ireki kamera eta lerratu pantailan ezkerredera edo eskuinera, edo sakatu nahi duzun modua hautatzeko.




Irisgarritasun-funtzioak


Ireki kamera eta aktibatu edo desaktibatu pantailaren goiko aldeko irisgarritasun-funtzioak.

Flasha: Sakatu flasharen ikonoa, flash-modu bat hautatzeko.

HDR: argi-contrako edo alde distiratsuen eta ilunen arteko kontraste handiko inguruneetan argazkiak egiten badituzu, aktibatu HDR modua itzalen eta argien xehetasunak hobeto ikusteko.

Ukitu  kameraren ezarpenak konfiguratzeko.

Sakatu  >  /  enkoadraketa-lerroak bistaratzeko edo ezkutatzeko.

Sakatu  >  tenporizadore automatikoaren aukera bat hautatzeko (adibidez, desaktibatua edo 3 s-koa).

Sakatu  >  enkoadraketaren neurria hautatzeko.



Oharra:

Funtzio batzuk aldatu egiten dira gailuaren modeloaren arabera. Kontuan izan telefonoaren modeloa.







Albumak

Bistaratu ateratako argazkiak eta bideoak eta biltegiratze-gailuan gordetako irudiak.

Diapositiba-aurkezpena:


1. **Argazkiak** aukeran, ireki argazki edo bideo bat eta sakatu  > **Aurkezpena**.
2. Joan **"Albumak"** atalera, ireki argazki bat edo bideo bat karpeta batean, eta ukitu  > **Aurkezpena"**

Argazkiak edo bideoak partekatzea

1. **Argazkiak** aukeran, sakatu  edo sakatu luze argazki bat edo bideo bat edizio moduan sartzeko; hautatu argazki edo bideo bat baino gehiago, eta sakatu  / .
2. **Albumak** aukeran, ireki karpeta bat, sakatu  edo luze sakatu argazki edo bideo bat edizio-moduan sartzeko, hautatu argazki edo bideo bat edo gehiago eta, ondoren, sakatu  / .

Ezabatutako argazki edo bideo bat berreskuratzea edo behin betiko ezabatzea

Ireki Albumak, sakatu **Duela gutxi ezabatutakoak** eta egin hau:

1. Luze sakatu argazkia edo bideoa aukeratzeko, eta, ondoren, sakatu  berreskuratzeke edo behin betiko ezabatzeko.
2. Ireki argazkia edo bideoa, eta, ondoren, aukeratu berreskuratzea edo behin betiko ezabatzea.

Oharra:

Funtzio hau erabiltzeko, **Duela gutxi ezabatutakoak** aktibatu behar duzu telefonoan. Ezabatutako argazkiak eta bideoak **Duela gutxi ezabatutakoak** aukeran gordeko dira aldi baterako, eta, epe jakin bat pasatu ondoren, behin betiko ezabatuko dira.

Irudiak editatzea


Argazkiak edo **Albumak** aukeretan, ireki irudi bat eta sakatu  editatzeko.

Kalkulagailua

Kalkulagailuak hainbat modu ditu oinarrizko kalkuluak eta kalkulu aurreratuak egiteko.





Ireki kalkulagailua

Kalkulagailura sartzeko:

- Irristatu hatza pantaila nagusian gora. Telefonoko aplikazio guztiak ikusiko dituzu. Idatzi Kalkulagailua bilaketa-koadroan, kalkulagailua aurkitu eta berehala irekitzeko.
- Irristatu hatza pantailan goiko aldetik behera kontrol-zentroa irekitzeko eta sakatu  kalkulagailua irekitzeko.

Kalkulagailua irekitzea

Kalkulagailua aplikazioan, kalkulagailua alda dezakezu, beharraren arabera.





- : Telefonoak oinarrizko kalkulagailua erabiltzen du lehenespenez, eta kalkulu aritmetiko errazak egiteko erabil daiteke.
-  Sakatu kalkulagailu zientifikora aldatzeko (eragile eta funtzio aurreratuak ditu).
-  Sakatu txanpon-bihurketako kalkulagailura aldatzeko. Kalkulagailua trukeak kalkulatzeko erabil daiteke.
-  Sakatu oinarrizko kalkulagailuaren edo kalkulagailu zientifikoaren kalkuluen historia ikusteko.

Oharra:

Telefonoa Internetera konektatu behar duzu moneta-bihurketaren kalkulagailua erabili ahal izateko.


Grabagailua

Erabili Grabagailua aplikazioa lanean eta egunerokoan ahots-oharrak grabatzeko. Erabili telefonoaren mikrofonoa grabatzeko. **Grabagailua** aplikazioan, ekintza hauek egin ditzakezu:







Sakatu  grabazioa hasteko. Ukitu  grabazioa eteteko. Sakatu  grabazioa eteteko eta gordetzeko.  denbora-marka sortzen du.

Grabazio bat erreproduzitzea




Grabazio bat erreproduzitzeko:

1. Hautatu grabazio-fitxategia eta ukitu  erreproduzitzeko edo eteteko. Arrastatu barrako kontrol irristagarria aurrera edo atzera joateko.



2. Grabazio-fitxategia irekitzen du erreproduzitzeko.

Erreprodukzioa eteteko, sakatu . Erreprodukzioari berriro ekiteko, sakatu .  denbora-marka sortzen du. Abiadura aldatzeko, sakatu . Bozgorailu modua aktibatzeke edo desaktibatzeke, sakatu  / . Erreproduzitzen ari dela sakatu marka bat, grabazioan markatutako kokalekura bizkor joateko.




Grabazioa partekatzea eta ezabatzea



Partekatu edo ezabatu nahi duzun grabazio-fitxategia luze sakatu, edo sakatu  > **Hautatu**, aukeratu grabazio-fitxategia eta, ondoren, sakatu  / .

Grabazioa dei-tonu gisa ezartzea

Dei-tonu gisa ezarri nahi duzun grabazio-fitxategia luze sakatu, edo sakatu  > **Hautatu**, aukeratu grabazio-fitxategia eta, ondoren, sakatu  > **Ezarri dei-tonu gisa**.

Grabazio bat moztea








Ireki editatu nahi duzun grabazio-fitxategia, sakatu  > **Moztu**, arrastatu denbora-lerroko kontrol irristagarria eta sakatu  /  grabazioa ikusteko edo berrabiarazteko.

Moztu grabazioaren zati bat, sakatu hautatutako zatia  gordetzeko edo ezabatzeko, eta, ondoren, sakatu .



Erlojua

Erlojua aplikazioak lau funtzio ditu: Alarma, erlojua, tenporizadorea eta kronometroa.


Alarma






1. Alarma bat gehitzeko, sakatu . Alarma bat editatzeko, sakatu alarma, alarmaren ezarpen-orrian sartzeko. Sakatu / erloju analogikora edo digitalera aldatzeko, konfiguratu alarma errepikari bat, doitu alarmaren soinua eta sakatu  alarma gordetzeko.
2. Alarma bat edo gehiago ezabatzeko, ireki Erlojua, sakatu  > **Hautatu**, hautatu alarmak eta sakatu . Halaber, luze sakatu dezakezu alarmak hautatzeko, eta, ondoren, sakatu  alarmak ezabatzeko.

Erlojua






1. Sakatu  mundu osoko hirien ordua gehitzeko.
2. Ordu-eremuak bihurtzea: Bi hiri edo gehiago gehitu badituzu, sakatu  > **Ordu-bihurgailua**, eta hautatu hiri bat, data bat eta ordu bat.

Tenporizadorea

Tenporizadorea erabil dezakezu ordu jakin batean atzerako kontaketa hasteko. Ezarri iraupena, eta sakatu  tenporizadorea martxan jartzeko.

Atzerako kontaketa egitean, sakatu  tenporizadore gehiago gehitu eta abiarazteko,  tenporizadorea kentzeko,  + 1:00 tenporizadorea minutu batez luzatzeko,  tenporizadorea eteteko eta  tenporizadorea berriz abiarazteko. Sakatu **Berrezarri** tenporizadorea berrabiarazteko.

Kronometroa

Sakatu  kronometroa abiarazteko. Sakatu  denbora partziala erregistratzeko. Sakatu  kronometroa etenda uzteko. Sakatu  kronometroa abiarazteko. Sakatu  denbora partzialak partekatzeko edo kopiatzeko.


Iparrorratza

Iparrorratzarekin, noranzkoak, longitudea, latitudea eta zeruertzaren lerroa lor ditzakezu. Funtzio hau erabili aurretik, egiaztatu telefonoa horizontalean eta interferentzia elektromagnetikoetatik urrun dagoela, emaitza doia izan dadin.

Oharra:

1. Aktibatu sare-konexioa eta kokapen-zerbitzua uneko kokapena egiaztatu aurretik.
2. Interferentzia handiak gertatzen direnean, iparrorratza kalibrazio-leihora aldatuko da, eta erabiltzeko prest egongo da berriz, kalibratu ondoren.
3. Iparrorratz digitala laguntza gisa bakarrik erabil daiteke nabigazioan. Ez erabili kokapen, hurbiltasun, distantzia edo noranzko zehatzak finkatzeko.


Musika


 **Oharra: Gailuaren ereduaren, operadorearen, herrialdearen edo eskualdearen eskakizunen eta beste gauza batzuen arabera, baliteke gailua aplikazio honekin bateragarria ez izatea edo aplikazioaren funtzio batzuekin soilik izatea bateragarria. Kontsultatu benetako gailuaren datuak. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan saltzailearekin edo zure zerbitzu-hornitzailearekin.**

Ez da beharrezkoa abestiak eskuz gehitzea. Sakelako telefonoak automatikoki arakatuko du biltegiratze-gailua, kantu bila, telefonoa pizten duzunean, eta Musika aplikazioari erantsiko dizkio.

Zerrendak


Ireki Musika hasierako pantailan eta ukitu **Zerrendak**. Sakatu **Erreproduktzio-zerrenda berria** abesti gogokoenen playlist bat sortzeko.

1. Playlist pertsonalizatu bat editatzeko: ireki playlist-a, sakatu , hautatu abesti bat edo gehiago, eta, ondoren, aukeratu **Erreproduktzio-zerrendara gehitu/Ezabatu**.

2. Playlist pertsonalizatua ezabatzeko: sakatu luze playlista eta hautatu  leiho gainerakorrean.

Playlist pertsonalizatu bat ezabatzeak ez dakar berekin abestiak ezabatzea.

Bilaketak egitea

Abesti asko badaude, sakatu , eta idatzi abesti, artista edo album baten izena, nahi duzuna azkar aurkitzeko.

Ezarpenak

Ireki  orria musika-earpenak konfiguratzeko.


Abestiak bilatzea: Telefonoan abestiak bilatzeko, sakatu **Bilatu abestiak**. Karpetak edo abestiak iragaz ditzakezu, abestien zerrendan ez bistaratzeko.

Atsedeen modua: Arrastatu erdiko kontrol irristagarria musika zenbat denboran erreproduzitzea nahi duzun ezartzeko, eta aktibatu **Atsedeen modua**. **Atsedeen modua** aktibatuta badago, telefonoak automatikoki utziko dio musika erreproduzitzeari, ezarritako denbora igaro ondoren. Konfiguratu dezakezu epe hori bukatutakoan musika erreproduzitzeari uzteko edo erreproduzitzeari utzi eta itzaltzeko .

Soinu-efektuak eta -doikuntzak: Sakatu **Audio-efektua** zure gustuko soinu-efektuak konfiguratzeko.

Eguraldia

Hiriak gehitzea


Sakatu  **Hirien kudeaketa** orrira joateko, eta, ondoren, sakatu **+** goian, eskuinean, hiri gehiago gehitzeko.

Eguraldia kontsultatzea

Eguraldiaren hasierako orrian, irristatu bihurgunean ezkerrerantz edo eskuinerantz tenperatura-aldaketak eta hurrengo 22 orduetako baldintza meteorologikoak ikusteko.

Beste hiri bat ikusteko, irristatu hatza pantailaren ezkerrera edo eskuinera.

Hiriak berrantolatzea

Sakatu  eta ireki **Hirien kudeaketa**, sakatu , luze sakatu  eta mugitu hiria gorantz edo beherantz berrantolatzeko.

Hiri bat ezabatzea

Hirien kudeaketa orrian, sakatu luze ezabatu nahi duzun hiria, eta sakatu **Ezabatu**.

Eguraldiaren ezarpenak

Sakatu  eguraldia nola bistaratu nahi duzun hautatzeko.

Oharra:


Telefonia Internetera konektatu behar duzu funtzio hau erabili ahal izateko.


EasyShare

Erabili EasyShare datuak erabili gabe fitxategiak bidali edo jasotzeko.

Datu-kontsumorik gabeko fitxategien transferentzia superazkarra



Hainbat motatako fitxategiak abiadura handian transmiti ditzakezu aldi berean, daturik erabili gabe. Adibidez, EasyShare erabiltzen baduzu Androiden gailu batean (jatorrizko telefonoa) fitxategiak bidaltzeko:

sakatu , hautatu transferitu nahi dituzun fitxategiak, eta, ondoren hautatu

Bidali. Fitxategiak transferituko diren telefonoan (helburuko telefonoa), sakatu  jatorrizko telefonoa bilatzeko edo eskaneatu QR kodea jatorrizko telefonoan, telefonoak konektatzeko. Ondoren, sakatu Ados jatorrizko telefonoan.

Telefonoa klonatzea

Telefonoa klonatzea funtzio segurua eta eraginkorra da; gainera, ez du daturik kontsumitzen telefono zaharretik berrira datuak azkar inportatzeko (kontaktuak, mezuak eta argazkiak barne).

Telefono zaharrear, sakatu **Klonatu telefonoa** > . Telefono berrian, sakatu **Klonatu telefonoa** > , hautatu sistema eragilea telefono zaharrear eta eskaneatu QR kodea edo konektatu eskuz sarbide-puntura.

Datuen segurtasun-kopia


Deskargatu eta instalatu EasyShare PCan, konektatu telefonoa PCra USB kable baten bidez, eta, ondoren, egin segurtasun-kopia edo leheneratu datuak. Bestela, hautatu **Wi- Fi_Konexioa** telefonoan, eskaneatu QR kodea PCan eta, ondoren, egin babeskopia bat edo berrezarri datuak.

EasyShare partekatzea

EasyShare partekatzeko:

1. Eskaneatu QR kodea, joan webgune ofizialera eta deskargatu eta instalatu EasyShare.
2. Partekatu bluetooth edo wifi bidez.
3. Partekatu WhatsApp edo SMS bidez.

Oharrak

 **Oharra:** Gailuaren ereduaren, operadorearen, herrialdearen edo eskualdearen eskakizunen eta beste gauza batzuen arabera, baliteke gailua aplikazio honekin bateragarria ez izatea edo aplikazioaren funtzio batzuekin soilik izatea bateragarria. **Kontsultatu benetako gailuaren datuak.**

Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan saltzailearekin edo zure zerbitzu-hornitzailearekin.



Sortu nahi dituzun oharrak zure ideiak eta inspirazio-uneak ez ahazteko.

Ohar bat sortzea






1. Ohar bat sortzeko:

- Sakatu  orrian .
- Ireki karpetan bat  eta, ondoren, sakatu .

2. Ekintza hauek egin ditzakezu ohar batean:

- Sakatu  testuaren formatua doitzeko, hala nola letra-tamaina.
- Sakatu  ataza-zerrenda bat sortzeko. .

Sortutakoan, sakatu  ataza bat egina dagoela markatzeko.

- Sakatu  oharrarentzako gogorarazpen bat ezartzeko.
- Sakatu  oharrari argazki bat gehitzeko.
- Sakatu  grabazio-modua aktibatzeke.
- Sakatu  oharraren atzealdea aldatzeko edo oharrari taula bat gehitzeko.
- Sakatu  aldaketak egiteko/deseziteko.

3. Sakatu  oharra gordetzeko.

Ohar bat markatzea

Ireki markatu nahi duzun oharra eta sakatu .

Ohar bat ainguratzea edo ezkutatzea

Sakatu luze Oharrak zerrendan, eta, ondoren, sakatu **Ainguratu/Utzi ainguratzeari** leiho gainerakorrean.

Ohar bat partekatzea edo gordetzea



Ireki markatu nahi duzun oharra eta sakatu .

Oharrak ezabatzea

Ohar bat edo gehiago ezabatzeko:

1. Luze sakatu ezabatu nahi duzun oharra, eta sakatu

Ezabatu leiho gainerakorrean.

2. Oharren zerrendan, sakatu , hautatu ohar bat edo gehiago, eta, ondoren, sakatu .

3. Ireki ezabatu nahi duzun oharra eta sakatu .

Google Apps

Googlek entretenimendua, sare sozialak eta beste aplikazio batzuk eskaintzen ditu. Baliteke zure Google kontuan saioa hasi behar izatea aplikazio batzuk erabili ahal izateko.

Informazio gehiago nahi izanez gero, joan aplikazioko Laguntza orrira.

Ezaugarri batzuk

Chrome/Google: Google Chrome web-orriak bilatzeko eta bisitatzeko nabigatzaile oso ezaguna da.

Gmail: Gmail posta elektronikoko bezero bat da, eta Google Mail-en zerbitzuak erabiltzen ditu mezu elektronikoak bidali eta jasotzeko.

Maps: Google Maps-ek zure kokapena aurkitzen lagunduko dizu, eta zure inguruan zer dagoen erakutsiko. Zure joan-etorriei buruzko informazioa ere eman dezakezu trafikoari buruzko informazioa lortzeko.

YT Music : YouTube Music-en musikarik onena eta bideorik berrienak ikus eta entzun ditzakezu. Erreproduzitu musika online edo gorde zure gailuan.

YouTube: YouTube-n askotariko bideoak ikus ditzakezu. Zure bideoak ere igo ditzakezu, nahi izanez gero.

Argazkiak: Google Fotos toki ezin hobea da zure argazkiak eta bideoak hainbat iturritatik editatu eta kudeatzeko.

Morroia: Googleren morroiak SMS mezuak bidaltzen, telefono-deiak egiten eta ibilbideak planifikatzen lagunduko dizu, guztia zure ahotsaren bidez.

Meet : Google Meet-ek bideo-deiak eskaintzen dizkizu, lagunekin eta senitartekoekin harremanetan jartzeko.

Fitxategiak: Fitxategi-administratzaile bat da, aukera ematen dizuna gordetako fitxategiak eta aplikazioak kudeatzeko, partekatzeko eta garbitzeko.

Google Pay: Google Payk Googlerekin bateragarriak diren ordainketa-metodo guztiak bateratzen ditu, ordainketa azkar eta modu seguruan egin ahal izateko, banku-informazioa behin bakarrik sartu ondoren.

Egutegia: Egutegiak zure hurrengo ekitaldiak gogoraraziko dizkizu; horretarako, jakinarazpenak bidaliko dizkizu telefonora datak hurbiltzen direnean.


Play store: Saioa hasi ondoren, Android-en aplikazio, joko, film, musika eta eduki interesgarri berrienak aurkituko dituzu. Zure beharren arabera bilatu eta deskargatu dezakezu edukia.

Mezuak: SMS balia dezakezu SMSko mezuak, argazkiak, bideoak, audioak edo bestelako fitxategiak bidaltzeko.

Oharra:

Baliteke aplikazio batzuk erabilgarri ez egotea edo funtzioak aldatzea herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

Deiak

 **Oharra: Gailuaren ereduaren, operadorearen, herrialdearen edo eskualdearen eskakizunen eta beste gauza batzuen arabera, baliteke gailua aplikazio honekin bateragarria ez izatea edo aplikazioaren funtzio batzuekin soilik izatea bateragarria. Kontsultatu benetako gailuaren datuak. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan saltzailearekin edo zure zerbitzu-hornitzailearekin.**

Kontaktuen bilaketa eta markaketa adimendunak


Zenbaki bat markatzeko teklatuarekin markatu dezakezu, edo kontaktuen zerrendara joan, kontaktu bat bilatu eta ondoren zenbaki horretara deitu. Bilaketa-metodoak:

1. Idatzi kontaktuaren izenaren lehen letrei dagozkien zenbakiak.
2. Idatzi kontaktuaren izenaren letra guztiei dagozkien zenbakiak.
3. Idatzi kontaktuaren zenbakia.

Deien historian zenbaki bat berriro markatzea

Kontaktu bati berriro deitu nahi badiozu, sakatu haren izena markaketa-teklatuaren gaineko deien historian. Markaketa-teklatura beherantz lerratu dezakezu, ezkutatzeko eta deien historiako eduki gehiago ikusteko.

Kontaktu-zerrendatik markatzea

Sakatu  markaketa-pantailan, ireki **Kontaktuak** zerrenda, eta hautatu deitzeko kontaktu bat.

Deietan

Deietan, pantailan hainbat ekintza egiteko aukerak agertuko dira.

Deia gelditzea

Sakatu **Utzi zain** deia gelditzeko eta sakatu berriz berriro ekiteko. Zain dagoen dei baten kostua eten gabeko dei baten kostu bera da.

Bozgorailua

Dei batean zaudela, sakatu  telefonoaren bozgorailua aktibatzen. Erantzun normalaren metodoa (telefonoaren entzungailuaren bidez) edo bozgorailu bidezko erantzuna hautatzeko ere uki dezakezu tekla hori.

Dei-bolumena doitzea

Sakatu [bolumen-botoia] deiaren bolumena doitzeko.

Pantaila itzaltzea

Sakatu [pizteko botoia] pantaila pizteko edo itzaltzeko. Deiaren kalitatea ez da aldatuko pantaila itzalita dagoenean. Pantaila itzaltzeak batera aurrezten du, eta pantaila ukitzean ez da nahi gabeko ekintzarik egiten.

Atzeko planoko deiak

Sakatu [Hasteko botoia] deia bigarren mailan exekutatzeko. Ondoren, beste ekintza batzuk egin ditzakezu telefonoan, adibidez, kontaktuak bilatu.

Beste dei bat egitea edo erantzutea


1. Beste dei bat jasotzen baduzu, txistu labur batzuk entzungo dituzu eta pantailan kontaktuaren informazioa eta dei-aukerak agertuko dira. **Utzi zain** hautatu dezakezu. Deiri erantzuten badiozu, aurreko deia zain geratuko da.
2. Beste zenbaki batera deitu nahi baduzu, sakatu **Gehitu dei bat** eta aukeratu kontaktu-zenbaki bat.

Zenbakia markatutakoan, aurreko deia zain geratuko da.

Oharra:

Bi deien artean aldatzeko, sakatu **Aldatu**. Linea batetik hitz egiten duzunean, bestea zain geratuko da.

Deien ezarpenak

 **Oharra:** Gailuaren ereduaren, operadorearen, herrialdearen edo eskualdearen eskakizunen eta beste gauza batzuen arabera, baliteke gailua aplikazio honekin bateragarria ez izatea edo aplikazioaren funtzio batzuekin soilik izatea bateragarria.

Kontsultatu benetako gailuaren datuak.

Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan saltzailearekin edo zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Ireki markadorea eta sakatu  > **Ezarpenak** deiak konfiguratzeko.

Dei-funtzioak

Blokeatu nahi ez dituzun deiak: kontaktu jakin batzuen deirik edo mezurik jaso nahi ez baduzu, blokeatu egin ditzakezu.

SMS bidez baztertu: editatu SMS mezu bat deitzen duenari bidaltzeko.

Dei-grabazioa: funtzio hau aktibatu edo desaktibatu dezakezu, eta grabatu nahi dituzun zenbakiak zehaztu.

Markaketa bizkorra: zenbaki-tekla bati kontaktu bat esleitzen dio. Ondoren, luze sakatu zenbakia teklatuan, kontaktu horretara bizkor deitzeko.

Bibratu erantzutean/esekitzean: funtzio hau gaituta badago, telefonoak bibratu egingo du beste aldeak deiari erantzuten dionean edo esekitzen duenean.

Desblokeatu ondorengo solaskidearen IDa: aukeratu solaskidearen IDa leiho gainerakor batean edo pantaila osoan erakutsi nahi duzun, telefonoa desblokeatu ondoren.

SIM txartela

Deia zain: funtzio hau gaituta badago, sareak beste dei bat jasotzen ari zarela adierazten duten soinuak egin ditzan konfiguratuko du telefonoa. Deiarri erantzun ala ez aukera dezakezu. Funtzio hori desgaituta badago, telefonoak ez du soinurik emitituko sartzen ari den beste dei bat jasotzen ari zarela adierazteko, eta kontaktuak okupatutako linearen tonua entzungo du (sare batzuek dei batean zaudela adieraz diezaiokete kontaktuari). Deiak desbideratzeko aukera aktibatuta badago, deia beste telefono batera desbideratuko da.

Deiak desbideratzea: funtzio hau gaituta badago, sarrerako deiak beste telefono batera desbideratuko dira. Deiak desbideratzeko lau aukera dituzu.

Deiak blokeatzea: funtzio hau gaituta badago, telefonoaren sarrerako eta irteerako deiak murriztuko dira. Murrizketa-maila ezar dezakezu, beharrezkoa bada. Pasahitza sartu behar duzu deien blokeoa aktibatzeko.

Ahots-postontzia: funtzio honen bidez, ahots-postontzian mezuak jaso ahal izango dituzu telefonoa itzalita dagoenean, zerbitzurik gabeko toki batean zaudenean edo deiei erantzun ezin diezunean.

Oharra:

Funtzio hori operadoreek ematen dute, erabiltzaileek ahots-postontziko mezuak gorde, birbidali eta entzun ditzaten. Zure operadorearekin harremanetan jar zaitezke ahots-postontziaren zenbakia eta pasahitza eskatzeko. Informazio gehiago behar baduzu, jarri harremanetan zure operadorearekin.


Markaketa finkoko zenbakiak: funtzio hau gaituta badago, SIM txartelean gordetzen den **FDN zerrendako** zenbakiak bakarrik markatu ahal izango dituzu. FDN zerrenda konfiguratzeke, zure PIN2 kodea sartu behar duzu.

Solaskidearen IDa: deitzen diozun pertsonak zure telefono-zenbakia ikusteko aukera ematen du.

Oharra:


funtzio hau erabilgarri dago operadoreak aukera ematen badu. Jarri harremanetan zure operadorearekin.

Kontaktuak


 **Oharra:** Gailuaren ereduaren, operadorearen, herrialdearen edo eskualdearen eskakizunen eta beste gauza batzuen arabera, baliteke gailua aplikazio honekin bateragarria ez izatea edo aplikazioaren funtzio batzuekin soilik izatea bateragarria. Kotsultatu benetako gailuaren datuak. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan saltzailearekin edo zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Gailuan kontaktuak sortzea edo kudeatzea.

Kontaktu bat sortzea

Sakatu  kontaktu berri bat sortzeko. Telefonoan edo SIM txartelean gorde dezakezu kontaktua.

Kontaktu bat editatzea


Sakatu kontaktu bat kontaktuaren xehetasunen orrira sartzeko, eta, ondoren, sakatu  goiko eskuineko izkina.

Informazio pertsonala editatzea

Informazio pertsonala gehitzea Amaitutakoan, ukitu QR kodea pantailan, QR kodea duen bisita-txartela ikusi edo partekatzeko.

Kontaktu bat partekatzea

Kontaktua beste pertsona batzuekin partekatzeko.

- Partekatu QR kodearen bisita-txartela. Sakatu **Tarjeta de visita de código QR**, eta jarraitu hura partekatzeko jarraibideei.
- Luze ukitu kontaktua, eta hautatu **Partekatu Kontaktua** leiho gainerakorrean.
- Joan kontaktuaren xehetasunen orrira eta sakatu  > **Partekatu Kontaktua**.

Gogokoak






Gogokoei kontaktu bat gehitzeko, ukitu kontaktua xehetasunen orrian sartzeko, eta, ondoren, aukeratu ☆.

Oharra:

Telefonoan gordeta dituzun kontaktuak bakarrik gehi ditzakezu.

Taldeak

Ekintza hauek egin ditzakezu talde batentzat:

1. Taldeari kontaktuak gehitu: sakatu **+**, hautatu kontaktu bat edo gehiago Kontaktuen zerrendan, eta, ondoren, aukeratu **+**.
2. Taldeko kontaktuak ezabatu: sakatu , hautatu kontaktu bat edo gehiago eta, ondoren, aukeratu .
3. Taldeko mezuak ezarri: sakatu  > **Taldeko mezua**, hautatu kontaktu bat edo gehiago eta, ondoren, aukeratu .
4. Taldeko dei-tonu bat ezarri: ukitu  > **Taldeko dei tonua**, eta ezarri nahi duzun talde-deiaren tonua.

Oharra:

Telefonoan gordeta dituzun kontaktu-talde bati bakarrik gehi diezaiokezu.

Ezarpenak


Ireki  > **Ezarpenak de Kontaktuak** kontaktuak konfiguratzeko.

1. **Inportatu/Esportatu**: hautatu kontaktuak eta inportatu/esportatu biltegiratze-gailu batera.
2. **Bikoiztutako kontaktuak konbinatzu**: sakatu **Bikoiztutako kontaktuak bateratu**. A eta B kontaktuek izen eta zenbaki bera badute, sakatu Bateratu bikoiztutako kontaktu bat ezabatzeko; A eta B kontaktuek izen bera edo zenbaki bera badute, hautatu kontaktuak eta sakatu Batera kontaktu bakar batean konbinatzeko.
3. **Kontaktuen zenbakiak bakarrik erakutsi**: funtzio hau gaituta badago, zenbakien kontaktuak bakarrik bistaratuko dira kontaktuen zerrendan.
4. **Kontaktuak erakutsi**: telefonoan edo SIM txartelean gordetako kontaktu-kopurua ikus dezakezu.

Oharra:

Bikoiztutako kontaktuak konbinatzeak kokaleku berean gordetako kontaktuentzat bakarrik funtzionatzen du.

Beste eragiketa batzuk



 **Oharra: Gailuaren ereduaren, operadorearen, herrialdearen edo eskualdearen eskakizunen eta beste gauza batzuen arabera, baliteke gailua aplikazio honekin bateragarria ez izatea edo aplikazioaren funtzio batzuekin soilik izatea bateragarria. Kontsultatu benetako gailuaren datuak. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan saltzailearekin edo zure zerbitzu-hornitzailearekin.**

Aurkibidearen bidez kontaktu bat bilatzea

Kontaktuen zerrenda luzea bada, zerrendaren eskuinaldeko aurkibidea erabil dezakezu kontaktu bat bizkor bilatzeko. Kontaktuak taldetan banatzen dira, abizenen hasierako letraren arabera. Aurkibidean letra bat uki dezakezu dagokion taldera joateko.



Deitzea

Kontaktuen zerrendako interfazetik, honela dei diezaiokezu kontaktu bati:

1. Lerratu kontaktu bat eskuinetik ezkerrera eta sakatu .
2. Ukitu kontaktua, joan xehetasunen interfazera eta, ondoren, ukitu  kontaktuan.


Testu-mezua bidaltzea

Kontaktuen zerrendako interfazetik, testu-mezu bat bidal diezaiokezu kontaktu bati, honela:


1. Lerratu kontaktu bat eskuinetik ezkerrera eta ukitu .
2. Ukitu kontaktua, joan xehetasunen interfazera eta, ondoren, ukitu  kontaktuan.


Ezarpenak

Sarea eta Internet

 **Oharra:** Gailuaren ereduaren, operadorearen, herrialdearen edo eskualdearen eskakizunen eta beste gauza batzuen arabera, baliteke gailua aplikazio honekin bateragarria ez izatea edo aplikazioaren funtzio batzuekin soilik izatea bateragarria. Kontsultatu benetako gailuaren datuak. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan saltzailearekin edo zure zerbitzu-hornitzailearekin.

● Wifia

Wifi-konexioa aktibatu edo desaktibatu dezakezu **Wifia** ataletik. Wifia aktibatuta dagoenean, aukeratu konektatu nahi duzun wifi-sarea.  Wifi-pasahitza behar duen sare zifratua dela adierazi behar duzu.

Telefonoa wifi-sare batera konektatuta dagoenean,  wifi-seinalearen intentsitatea egoera-barran bistaratuko da. Zenbat eta barra gehiago agertu, orduan eta indartsuagoa izango da seinalea. Wifi-sarerik ez badago edo Wifi-konexioa desaktibatuta badago, telefonoa datu-sarera konektatuko da Interneten sartzeko. Telefonoa wifi-sare batera konektatu ondoren, automatikoki konektatuko da hurrengoan sarearen estaldura-erradioaren barruan dagoenean.

Erabilgarri dauden sareen zerrendan agertzen ez den wifi-sare bat gehitzeko, sakatu  idatzi sareko SSIDa.

Ezkutuko sare batera konektatzeko, sarearen izena, pasahitza eta segurtasun-mota ezagutu behar dituzu.

● SIM txartela eta sare mugikorra

Hemendik SIM txartelaren uneko egoera ikus dezakezu eta SIM txartelaren doikuntzak konfiguratu, zure erabileraren arabera.

Datu mugikorrak: aktibatu aukera hau Nabigatzailea eta Posta bezalako aplikazioak datu-sarearen bidez erabiltzeko. Zure operadoreak gastuak kobra diezazkizuke. Xehetasun gehiago jakiteko, jarri harremanetan operadorearekin.


SIM txartel gogokoena: bi SIM txartel erabiltzen badituzu, konfiguratu datu mugikorretarako eta deietarako SIM txartel gogokoena. Telefonoak SIM txartel gogokoena erabiliko du automatikoki.

SIM txartelaren informazioa eta doikuntzak: aukeratu SIM txartel bat SIM txarteleko informazioa (SIM txartelaren izena, adibidez), sare nagusi mota eta SIM txartelaren aplikazio bakoitzeko datuen erabilera ikusteko edo ezartzeko.

● **Sarbide-puntua eta konexio partekatua**

Partekatu zure wifia, bluetootha edo USB sarbide-puntua beste gailu batzuekin, wifi-sarearen edo datu-sarearen bidez Internetera sar daitezten.

Sarbide-puntu bat aktibatzeko:

- Irristatu hatza pantailan goiko aldetik behera kontrol-zentroa irekitzeko eta sakatu .
- Ireki **Ezarpenak > Sarea eta Internet > Sare publikoa eta konexioa partekatzea > Wi-Fi sare publikoa** eta aktibatu etengailua.

Ezarri eskuz sarbide-puntuaren izena, segurtasun-mota eta saioko datuen muga, beharraren arabera.

● **Datuak aurrezteak**

Datuak aurrezteak aplikazio batzuek datuak bigarren mailan erabiltzea saihesten du, eta, beraz, datuen erabilera murrizten laguntzen du. **Datu-erabilera mugagabea** moduak, aplikazio bakoitzerako etengailua aktibatzen edo desaktibatzen du, datuak aurrezteko beharraren arabera.

● **Sareen kudeaketa**


Zerrenda honetan sartzen dira datu-sarera edo wifi-sarera sartzeko

baimena duten aplikazio guztiak. Aplikazio horietarako Interneteko baimena gaitu edo desgaitu dezakezu, beharrezkoa den heinean.

● Hegazkin modua

Hegazkin modua aktibatu behar duzu hegaldi batean.

Hegazkin modua aktibatzeke:

- Irristatu hatza pantailan goiko aldetik behera kontrol-zentroa irekitzeko eta sakatu .
- Ireki **Ezarpenak > Sarea eta Internet** eta aktibatu **Hegaldi modua**.

● VPNa

